2019ko ekainean erregistratutako langabezia

2019ko ekainean zehar LANBIDEko bulegoetan 2.530 langabe gutxiago erregistratu dira. Horrek esan nahi du murrizketa balore erlatiboetan % 2,2koa izan dela, eta 111.343 langabe daudela. Normalean ekainean langabezia nabarmen murrizten da. Hilabete honetan, lehengo urtean baino zertxobait gehiago murriztu da.

Langabetuen hilabeteko saldoaren bilakaera



	eka-05	eka-06	eka-07	eka-08	eka-09	eka-10	eka-11	eka-12	eka-13	eka-14	eka-15	eka-16	eka-17	eka-18	eka-19
Series1	-183	-429	-194	-101	-264	-328	-393	-282	-420	-710	-460	-358	-296	-231	-253

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 9.142 pertsonetan murrizten da langabezia, aurreko hilabetean baino 214 gutxiago. 2018an eta 2019 hasieran izandako urte arteko murrizketaren erritmoaren gutxitzearen tendentzia geratu egin da.

Erregistratutako langabetuen urte arteko saldoaren bilakaera



- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-% 3,7) emakumezkoen artean baino (-% 1,1). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonen artean % 8,4 murriztu da, eta emakumeen artean, berriz, % 7 soilik. Gaur egun langabeen % 57,9 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da. Murrizketa handiena 25 urte azpikoen artean tartean izan da (-% 10,2). Urte arteko saldoan ere, 24 urte azpikoen tendentzia alde batera utzita (langabezia hazi egin da talde honetan), korrelazio handia dago langabeziaren murrizketan eta adinaren artean. Jaitsiera handiena 25 eta 44 urte arteko tartean izan da. Langabeen erdiak (% 51,6) 44 urte baino gehiago ditu, % 24,1ak ez ditu 35 urte baino gehiago eta beste % 24,3a 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Ekainean zehar, langabezia sektore ekonomiko guztietan murriztu da. Zerbitzu sektoreko murrizketa nabarmentzen da, 1.268 langabetu gutxiago (% 1,7ko murrizketa). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean 680 langabe gutxiago zenbatzen dira. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, % 15,3ko jaitsiera, baita lehen sektorekoa (% 10,5eko jaitsiera) ere.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handiena izan duena txikizkako merkataritza izan da 320 langabetu gutxiagorekin, eta ondoren enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (-212) izan dira. Igoera nabarmenak izan dituzten jarduera batzuk hauek izan dira: hezkuntza (+443) eta elkarte-jarduerak (+56).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 1.083 pertsonatan murriztu da eta epe laburrekoa 1.447 pertsonatan. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (% 12,7a, epe laburreko % 1,3aren aldean). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Ekainean langabezia hiru lurraldeetan murriztu da: Araban %1,9, Gipuzkoan % 3,8 eta Bizkaian % 1,6.

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio onena % 8,2ko jaitsierarekin; Bizkaiak jarraitzen dio % 8ko jaitsierarekin eta azkenik Araban % 5,3 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Gasteizen azken hilean 267pertsonatan jaitsi da langabezia, Bilbon 369 pertsonatan eta Donostian 299 pertsonatan. Langabezia hazi diren eskualdeak Lea-Artibai (+50), Araba Mendialdea (+11) eta Arratia-Zornotza (+1) izan dira. Aldiz, eskualde hauetan langabezia jaitsi egin da: Ezker Eskualdea (-239) eta Bidasoa Behera (-173).

Hil honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (% 18,65), Sestao (% 17,66), Balmaseda (% 15,85), Karrantza (% 14,98) eta Santurtzi (% 14,39).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2019ko ekainean 35.508 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 427 langabe gutxiagok. Langabeen % 31,5ak du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 19.644 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 17,6 dira horiek. 15.444 langabek (% 13,9), berriz, langabeziagatiko prestazioa

jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 34,6), Araban eta Bizkaian % 30,8koa eta % 30,3koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 0.3 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 3.8 hazi da.

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 61,5ak (68.538 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.834 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 8,4 jaitsi da langabezia azken urtean. Azken hilabetean eta azken urtean gehien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,7 dira. Talde horretan % 5,9 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 6,8.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 19.380 dira, hau da, langabeen % 17,4. Talde hau ekainean zehar % 2 murriztu da, eta azken urtean % 4,7.

Azkenik, langabeen % 12,3k (13.712 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 2,3 hazi da langabezia azken hilabetean eta % 8,2 murriztu azken urtean.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,7 (17.530 lagun), atzerritarrak dira. Ekainarekin alderatuta, ikusten da langabezia % 2,4 murriztu dela atzerritarren artean, eta % 2,2 bertakoen artean.

Langabe atzerritarren % 35,6a Afrika iparraldekoak dira, % 20,7a Latinoamerikatik datoz, % 20 Europako Esparru Ekonomikotik, % 14,3a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,7, azkenik, Asiatik. Ekainean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-% 3,1).

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 63.805 langabe gutxiago daude ekainean baino (% 2,07ko jaitsiera). Guztira 3.015.686 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,22 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziaren bilakaera honakoa izan da; Kantabrian % 5,62 murriztu da, Nafarroan % 2,84, Errioxan % 1,64 eta Gaztela eta Leonen % 5,11. Katalunian % 3,72 murriztu da eta Madrilen % 1,91 murriztu da.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-% 4,63) EAEren aldean (-% 7,59).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko ekainean

	eka-2019	mai-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	46.834	48.625	-1.791	-3,68
EMAKUMEZKOAK	64.509	65.248	-739	-1,13
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	7.431	8.278	-847	-10,23
GIZONEZKOAK	3.817	4.271	-454	-10,63
EMAKUMEZKOAK	3.614	4.007	12	-9,81
25-44 URTE:				
GUZTIRA	46.410	47.016	-606	-1,29
GIZONEZKOAK	18.470	19.137	-667	-3,49
EMAKUMEZKOAK	27.940	27.879	61	0,22
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	57.502	58.579	-1.077	-1,84
GIZONEZKOAK	24.547	25.217	-670	-2,66
EMAKUMEZKOAK	32.955	33.362	-407	-1,22
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.391	2.411	-20	-0,83
INDUSTRIA	13.045	13.410	-365	-2,72
ERAIKUNTZA	7.827	8.024	-197	-2,46
ZERBITZUAK	73.988	75.256	-1.268	-1,68
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.092	14.772	-680	-4,60
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.633	18.987	-354	-1,86
BIZKAIA	63.913	64.953	-1.040	-1,60
GIPUZKOA	28.797	29.933	-1.136	-3,80
EAE	111.343	113.873	-2.530	-2,22

	Langa-betuak	Erregistratu-tako langabe-zia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.745	10,1%	-173	-4,42	-216	-5,45
Oarsoaldea	3.352	9,3%	-29	-0,86	-277	-7,63
Donostia-S.Seb.	7.021	8,0%	-299	-4,08	-719	-9,29
Donost.Mendebaldea	2.851	7,9%	-51	-1,76	-285	-9,09
Tolosaldea	1.856	8,0%	-85	-4,38	-293	-13,63
Urola Erdia	1.147	7,7%	-44	-3,69	-176	-13,30
Goiherri	1.563	7,5%	-55	-3,40	-89	-5,39
Deba Garaia	2.236	7,5%	-132	-5,57	-156	-6,52
Deba Behera	2.623	10,0%	-129	-4,69	-181	-6,46
Urola Garaia	1.007	8,4%	-32	-3,08	-72	-6,67
Urola Kosta	1.396	6,3%	-107	-7,12	-100	-6,68
GIPUZKOA	28.797	8,3%	-1.136	-3,80	-2.564	-8,18
Vitoria-Gasteiz	14.647	11,9%	-267	-1,79	-810	-5,24
Aialako Ibarra	2.172	11,5%	-74	-3,29	-151	-6,50
Arabar Errioxa	616	11,6%	-2	-0,32	-56	-8,33
Arabako lautada	608	8,3%	-12	-1,94	-47	-7,18
Gorbeia inguruak	272	5,9%	-20	-6,85	17	6,67
Arabako Ibarrak	346	7,1%	-1	-0,29	-25	-6,74
Arabako Mendialdea	103	6,9%	11	11,96	-21	-16,94
ARABA	18.633	11,4%	-354	-1,86	-1.054	-5,35
Gobela	4.618	8,9%	-72	-1,54	-344	-6,93
Txorierri	2.115	9,2%	-59	-2,71	-263	-11,06
Uribealdea	2.794	8,5%	-50	-1,76	-141	-4,80
Durangaldea	3.027	8,1%	-120	-3,81	-89	-2,86
Busturialdea	2.069	9,6%	-64	-3,00	-122	-5,57
Lea-Artibai	946	7,9%	50	5,58	15	1,61
Enkarterriak	2.068	13,3%	-10	-0,48	-180	-8,01
Arratia-Zornotza	1.375	8,0%	1	0,07	-85	-5,82
Arratia-Nerbioi	1.240	9,5%	-23	-1,82	-107	-7,94
Bilbo	22.162	13,3%	-369	-1,64	-2.239	-9,18
Ezkerraldea	16.902	13,5%	-239	-1,39	-1.622	-8,76
Ibaizabal	4.465	11,1%	-74	-1,63	-307	-6,43
BIZKAIA	63.913	11,4%	-1.040	-1,60	-5.524	-7,96
EAE	111.343	10,4%	-2.530	-2,22	-9.141	-7,59

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.